



## ZORIONTASUNA.

POESIA SEÑALADA CON **ACCESIT** EN LOS JUEGOS FLORALES DE  
PAMPLONA.

Ikusitzen dezute borda churi ori  
Mendi egal orretan alcharik egoki?  
Orren tellatupean daude usocho bi  
Beti zorionean diradenak bizi.

Urbillean dituen iturri errekek,  
Adar orrien pir pir eta aize biguñak,  
Eziñ asma liteken mintzoeran danak  
Dirudite zuzentzen zerura alabantzak.

Eziñ ederragoak ditu inguruak  
Erromeroren usai gozoz lurrinduak:  
Zora erazten duten chorien kantuak  
Agertzean goizeko argi-errañuak.

Ez da aditzen kaleko aji ta bullarik  
Aen lo sosegua naasiko duenik;  
Ez dute sentitutzen aize pozoiturik  
Ukitzean etika paratzen duenik.

Birau eta itz loirik aditu ez dute;  
Iñori gorrotorik izan ez diote;  
Kutizi galgarririk zer dan ez dákite;  
Bide onez datozen gauzak nai dituzte.

¡Zeñen atsegiñ duten denbora pasatzen  
Kabi garbi polita goiño pallakatzen;  
Ume mardulai kontu egin ta pazkatzen,  
Jaungoikoaren bildur santuan azitzen!

Senarraren lagunak dirade idiak;  
Emazte garbirenak auntsak eta ardiak;

Aur gaitzikaberenak arkume churiak,  
Anchume, ollo eta beste eche-egaztiak.

Eguna senti beziñ laster nagusia  
Lurra lantzen asi da, bota du azia,  
Bekokitik darion izerdiz bustia,  
Jaunaren izenean egiñaz guztia.

Alperkeria zer dan ez du nai ikasi  
Zeren badaki dala gaitz danen nagusi;  
Nola dion lanean aitak erakutsi,  
Eskola ortan ditu semeak nai azi.

¡Bedeinkatua, dio, izan bedi lana!  
Onek garbitutzen du Adanen ogena <sup>1</sup>  
Zorigaiztoan sarjin santuan egiña!  
Onela bildutzen dan uztà da onena.

Eguzkia sartu da goibelen tartean,  
Baita ere ardiak euren salechean:  
Ari dira eskillak illunabarrean  
Mariari agurrak egiten dorrean.

Ona non dan senarra sorotik echera;  
Aurcho zuri-gorriak zaiozka bidera  
¡Nere aitacho!, aji egiñaz, atera,  
Amorezko laztan bat pozez eskatzera.

Arikatik dio batek abian oratu;  
Eskutikan besteak achur laiak artu,  
Galdetuaz: ¿eguna ongi du pasatu?  
Atal-zakurrak ere nai du pallakatu.

Iduki arren amak besotan bildurik,  
Larrosacho bat bular garbitik zintzillik  
Konsuelozko itzak ezin moldaturik,  
Izerdia kendutzen dio arpegitik.

Emakume ori da orko ispillua;  
Penak kentzen dituen baltsamu santua;  
Usai ona banatzen duen ispligua;  
Esiz ichia dagon sarjin loretsua.

¿Nola ez du senarrak, nola ez gurtuko?<sup>2</sup>  
Angerucho bat bada echea zaitzeko;  
Ama biotz bigun bat aur gaiSoentzako;  
Atsegintasun eta poza danentzako?

¿Nola ez da izango eche ortan dana

(1) Kulpa.—(2) Adoratuko.

Gaitzikera, doaia eta ontasuna;  
 Amorioa eta zoriontasuna;  
 Pake gozo gozoa eta naitasuna?  
 ¿Ez da or pasatuko goñsoro denbora  
 Erreka murmurlari malsoren gisara,  
 Daramanean garbi koajezko ura  
 Iragoaz ibarrak batetik bestera?

Orko gozotasunak ¿nork ongi azaldu?  
 Zeru koak dirala ¿nork esango ez du?  
 Eleiza santu orren barrena ezpadu  
 Alchatu ezkeroztik ezerchok zikindu?

Eta ala ere ¿ona zer dan aundinaia!  
 Lajarik amorezko ¡a! bizitegia,  
 ¡Zenbatek du ikusi nai *mundu berria*,  
 Arkitzeko ustean urrezko kabia!

Zenbat ¡ai! kaiolatik iges egin duen  
 Choriren gisa diran betiko galdutzen,  
 Jakin gaberik nora egaaka doazen,  
 Eta beste kabirik izango ote duten!

Artzaien kanta eta lurriñaren orde;  
 Mendi, zelai berde ta zeru urdiñen partez,-  
 Egoaizeiak eta lañoa .... ezer ez,  
 Arkituko dituzte maizcho, nere ustez.

Parre gozoak dira lantu biurtuko;  
 Fedez beroak zeuden biotzak oztuko;  
 Denbora onaren truk ekaitzak sortuko  
 Neskachen soñ churiren ertzak zikintzeko.

Nora ez dakitela dira ibilliko  
 Ustez Jauja dutela nonbait billatuko;  
 Eta alde guzietan dute arkituko  
 Eziñ bizia eta ... desengañu asko.

Doai segururikan,—dute esango orduan,—  
 Echetikan urruti ez dago munduan:  
 ¡Nor legoken ¡ai ama! eche inguruan,  
 Utsirudi <sup>1</sup> maiteak zazkigunean juan!

Zeñen zorioneko, ama, bizi giñan  
 Mai urriren ondoan biltzen giñanean,  
 Aiton buru zuriak bedeinkatuzean,  
 Jan ta bakoitsa bere chuloan sartzean!

---

(1) Ilusio.

¡Aek amets gozoak! ai zer oroimenak,  
Inchaur ta gereizpean pasa giñuzenak!  
Zorigaiztoan egin giñien agurrak,  
Bizitatzeko emen egiñaz negarrak!

Ez bezaio iñori eman konsejurik  
Datorrela onera euskaldun gazterik:  
Baleki zeñen ogi mina jan dedan nik...!  
Ez luke sinistuko .... nagoan isillik!

Gisa onetan dira geienak mintzatzen  
Urez beste aldera diradenak juaten:  
Zulatzean beatza dirade Oroitzen,  
Ez dala arantz gabeko larrosik arkitzen:

Ez dutela izango iñon atsedunik  
Saleche, borda eta baserrian baizik,  
Ez ta ere sekula mundu ontan onik,  
Euskal-erri zorora itzuli gaberik.

Mundurik ez dezuten gazteak, begira;  
Ez jua atsegin billa, iñondik iñora;  
Mendi zoragarriak utzita kanpora;  
Bada emengo doiak zerutarrak dira.

C. DE OTAEGUI.

